



2023ko martxoaren 9an, Lanbide Heziketako sailburuordearen 2023ko otsailaren 27ko ebazpena argitaratu zen EHAAn, zeinaren bidez aldatzen baita Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan ordezkariak duten gizarte-eragileek, beren jarduera-eremuan, 2023ko ekitaldian kompetentzia profesionalak ebaluatu eta egiaztatzeko prozedura sustatu eta bultzatzeko jarduerak gara ditzaten dirulaguntzak emateko Balorazio Batzordearen osaera.

Aurkeztutako eskabideak ebaluatu ondoren, Balorazio Batzordeak behin-behineko ebazpen-proposamena egin zuen, 2023ko martxoaren 15ean egindako bileraren aktaren I. eranskinean behar bezala arazoituta eta laburtuta. Proposamen hori bitarteko elektronikoen bidez jakinarazi zitzaien onuradunei 2023ko apirilaren 4an, eta, era berean, 10 egun naturaleko epea eman zitzaien, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkezteko.

Behin jakinarazpena eginda eta alegaziorik aurkeztu ez zenez, Balorazio Batzordeak prozeduraren ebazpen-proposamena egin eta Plangintza eta Antolaketako zuzendariak, organo instrukzio-egile gisa, Lanbide Heziketako sailburuordeari helarazi zion, 2023ko apirilaren 18ko aktan jasota dagoen modura.

Proposamena Lanbide Heziketako sailburuordeari helarazi ondotik, eta aginduaren 14. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, sailburuorde horri berari dagokio aurkeztutako eskabideei buruzko ebazpenak ematea eta erakunde interesdunei jakinaraztea; horretarako epea, gehienez, sei hilabetekoa delarik, deialdia argitaratu eta biharamunetik hasita.

Adierazitakoagatik, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan ordezkariak duten gizarte-eragileek, beren jarduera-eremuan, kompetentzia profesionalak ebaluatu eta egiaztatzeko prozedurak sustatu eta bultzatzeko jarduerak gara ditzaten dirulaguntzak ematea I. eranskinean zerrendatzen diren entitate onuradunei, betiere Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 27ko aginduaren 13. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideei eta 12. artikuluan ezarritako mugari jarraikiz, Balorazio Batzordeak proposatuta, eta eranskin horretan erakunde bakoitzarentzat zehazten den zenbatekoarekin.

2. artikulua.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, herritar oro jakitun egon dadin.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Gainerako baldintzetarako, kontuan hartuko da Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 27ko aginduan xedatutakoa.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioko Hezkuntzako sailburuari, hila-beteko epean, ebazpen hau ikastetxeei jakinarazten zaien egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 18a.

Lanbide Heziketako sailburuordea,  
JORGE ARÉVALO TURRILLAS.

2023ko ekainaren 2a, ostirala

## ERANSKINA

EBAZPENA; DIRULAGUNTZAK EMATEKOA, LANBIDE HEZIKETAKO EUSKAL KONTSEILUAN ORDEZKARITZA DUTEN GIZARTE-ERAGILEEK, BEREN JARDUERA-EREMUAN, 2023KO EKITALDIAN KONPETENTZIA PROFESIONALAK EBALUATU ETA EGIAZTATZEKO PROZEDURAK SUSTATU ETA BULTZATZEKO JARDUERAK GARA DITZATEN

Zk.	IFK	Entitate eskatzailea	Jarduketa-planaren balorazioa (0-10 puntu)					Esleipena		
			Helburuen garrantzia eta jarduketa-planean zehaztutako ekintzen egokitzapena (gehienez 4 puntu)	Jarduketa-plana hedatu eta egiteko egitura eta metodologia egokitzea (gehienez 3,5 puntu).	Jarraipen-adierazleen egokitasuna eta jarduketa-planaren ebaluazioa (gehienez 2,5 puntu).	Puntuazioa guztira	1. pertsonari esleitutako kopurua (gutxienez 5 puntu)	2. eta 3. pertsonari esleitutako kopurua	Guztira esleitutako kopurua	
1	G48470645	U.G.T. Euskadi	3,5	3,00	2,5	9,00	52.000,00 €	93.990,84 €	145.990,84 €	
2	G20054359	Asociación de Empresas de Gipuzkoa - ADEGI	3	2,00	2,5	7,50	47.136,29 €		47.136,29 €	
3	G48200521	Comisiones Obreras de Euskadi-Bizkaia	2,5	2,50	2	7,00	52.000,00 €	104.000,00 €	156.000,00 €	
4	G48089908	Confederación Empresarial de Bizkaia-Bizkaiko Enpresarien Konfederazioa	2,5	1,50	2,5	6,50	46.993,70 €		46.993,70 €	
5	G01031418	SEA Empresas Alavesas	2,5	1,50	2	6,00	50.131,26 €		50.131,26 €	

Esleitutako eskabideen kop.	5
-----------------------------	---

Σ	446.252,09 €
---	--------------